

PARAÍSO ANTZERKIA

KUTXARTEAN



AKTOREAK: XABI FLAMARIQUE, ARTIZ BENGOA, XABI ARTIEDA

DRAMATURGIA: ROSA A. GARCÍA / ARGIZTAPENA: JAVIER GARCÍA / JANTZITEGIA ETA ATREZZOA: PILAR LÓPEZ, ANA FDEZ. ALONSO /

ESZENOGRAFIA: TEATRO PARAÍSO, ASIER CALAHORRO / ITZULTZAILEA: PATXI ZUBIZARRETA

ZUZENDARIA: TOMÁS FDEZ. ALONSO

Babesleak

Laguntzailea Eskena eta TeVeoko kidea

Jarraiguzu



KUTXA BETE SORPRESA

Kutxartean: bat, bi, hiru . . . kutxa, txiki edo handi, ustekabez eta ezustekoz beteak. Eta hona hemen **Bartolomeus**, altua bezain txukuna, bere txistuarekin garbitu eta garbitu . . . Eta horra hor **Kumino**, txikia bezain baldarra, irudimenaren tiranteetan zintzilik, ezin egon ixilik.

Bartolomeusek eta Kuminok halako sudur gorri bana daukate, ikusezina da, baina burutik oinetarainoko xalotasunez gorritzatzen ditu.

Dena dela, istorio dibertigarri honetan bada **gaizto bat** ere: musikaria, bonbo-txindatak joka, bikotearen adiskidetasuna apurtzen saiatuko da.

Sorpresaz sorpresa, zirku baten karpapean sentituko gara, edo itsasoan barrena, pirata mozorropean. Edota hodeietan hegan, edo ilargiarekin talkan . . . ez dio axola, azken kasuan irribarrezko koltxoi baten gainean jausiko gara.

Kutxartean irudimenaren aldarria dugu, nork bere baliabideak erabiltzearen aldarrikapena da eta, freskularekin batera, bizipoza dakar.

Eta badugu horren beharrrik!

Patxi Zubizarreta

